

Hiru sentimendu eszenatoki berrian



MIKEL SAIZ

Victor Aiendi

ETAren adierazpenaren ondorengo egoeran, gehiago komentatzen da norberak zer *sentitu* duen, *pentsatu* duena baino. Nire kasuan ere honela da. Elkarriko arduretan hainbat urte eman eta gero, egoera berriak sentiarazi didanak garrantzi handiagoa du, pentsatu dudana gain. Kasu honetan, sentitzea, hierarkikoki, nagusi da hausnarketaren gainetik. Indar handiagoa du.

Nire sentipenak, laburbilduta, hiru izan dira, albistea jaso eta lehenengo unetik. Aurrena, eta atzera begira, *asetasuna*, sekulako barne asetasuna. Asmo kolektibo sakona betetzen ari zela ikusten ari ginelako aurrez aurre, zuzenean. Bereziki gogoan izan ditut hona iristeko, denbora luzez, ordu, lan eta ahalegin handia eskaini duen pertsona asko.

Asetasun horren alde nagusia da, konponbide eredu bat aurrera atera dela. Bi hitzetan, elkarriketa eta biolentzia eza, edo beste era batera esanda, konponbide demokratikoak urrats handia eman duela. Eta, zergatik ukatu, horren alde egin duen jendearen barnean geldituko den betirako sentsazioa: norabide onean bul-tzatu izana, ekarpen positiboa egin izana. Kontzientzia lasaitasuna, bakoitzak ahal izan duen moduan laguntzeagatik.

Azken urteetako norberaren jardunaren barne hausnarketa eta bakoitzak, per-sonalki zein taldean, egindakoaren irakurketa kritikoa eta autokritikoa egitean, akatsak eta ondo egindakoak errepasatuz, oso ederra da herri honetan bakea eraikitzen lagundu izana. Bizitza guztian eramango den barne satisfazio hori ordaine-zina da. Konfrontazio armatuaren amaieraren alde, bide demokratikoaren alde, hainbat energia dedikatu izanak ordainsari ukiezin bezain indartsua eskaini du azkenik.

Bigarren sentipena, orainaldira begira, *harrotasun* neurritsua, Lokarri eta elkar-riketaren lagunen lanaz harrotasuna. Lokarriko lagunak, ez da soberan aitort-zea, une egokian, toki zuzenean eta jarrera onenean egoten asmatu dute. Belau-naldien ikusmira batetik ikusita, bakegintza-gizaldi berriak lortu du zaharrak lortu ez zuena. Baina ulergarria da zaharrek poztasun handiz jasotzea bere oinordeko-en lorpenak, bereak bailira bezala, bederen, perspektibak ematen duen baretasu-nean.

Hirugarren sentipena, etorkizunera bideratuta, *lasaitu* ederra. Gure herria eta bereziki ondorengo belaunaldiak, gure seme-alabek barne, bere bizikidetza sozio-politikoan ez dira gu eta gure aurrekoak bezain baldintzaturik izango euskal gatazka dela eta. Hau da garrantzitsua, zalantzarik gabe. Gure gatazka politi-koa(k) beste era batera kudeatzeko aukera zabaldu da, edonola ikusita, askoz ere hobe.

Hemendik aurrera, inork ez du uste dena erraza, laua eta leuna izango denik. Baina inflexio puntu garbia eman da. Arazoaren zergatia eta ondorioei aurre egi-tearekin batera, euskal gizarteak bere indarrik onenak bideratu ahal izango ditu eraikitze lanetara. Alegia, gizarte bezala onenen eta aurreratuen mailan egote aldera. Eta horren bila jardunbide demokratikoetatik soilik.

Zauri asko sendatzen laguntzeko, jarrera positiboarekin eta ahalegin onenare-kin batera, indarrak bildu beharko dira hemen, politika onenak ezarriz. Berrikun-tza ez dagokio soilik teknologiar, bizikidetza politikoan ere eraberritzea ezinbes-tekoa da.

Etorkizun argitsua dugu aurreko akatsetatik ikasten jakinez gero. Une historikoa (oraingoan bai esan daiteke) partekatu eta Euskal Herri berriaz gozatzeko eskubidea genuen. Eta berau gauzatzeko bidea hasi da.



» Akatsak eta ondo egindakoak errepasatuz, oso ederra da herri honetan bakea eraikitzen lagundu izana. Bizitza guztian eramango den barne satisfazio hori ordainezina da